


Euskal AEn 2.170 ezkontza izan ziren 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino % 10,1 gutxiago

Urteko metatuan jaitsiera % 1,5ekoa izan da

Eustaten datuen arabera, 2025eko bigarren hiruhilekoan 2.170 ezkontza izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean (2.413 ezkontza) baino % 10,1 gutxiago.

Ohikoa denez, bigarren hiruhilekoan nabarmen igo zen ezkontzen kopurua lehen hiruhilekoaren aldean (+% 72,2). Bestalde, ekainean egin ziren hiruhilekoko ezkontzen % 44,9.

Euskal AEko ezkontzak, hilaren arabera Guztira eta joera



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Inskripzioaren lurralde historikoa kontuan hartuta, ezkontzen kopuruak behera egin zuen hiru lurraldeetan. Bizkaian 1.024 ezkontza izan ziren, % 10,9 gutxiago; Gipuzkoan 705 ezkontza, % 7,5 gutxiago; eta Araban 327 ezkontza, % 5,8 gutxiago. Bestalde, Euskal AEz kanpoko 114 ezkontza inskribatu ziren.

2025eko udaberriko hilabeteetan, ezkontzen % 92,6 ezkontza zibilak izan ziren, hau da, 2024ko hiruhileko berean baino ehuneko 0,3 puntu gehiago.

2025eko bigarren hiruhilekoko 2.170 ezkontzetan, Euskal AEn bizi diren 2.076 gizon eta 2.104 emakume ezkondu ziren. 1.769 senarrentzat (% 85,2) lehen ezkontza izan zen; bestalde, 17 gizonezko alargun eta 290 gizonezko dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakumeei dagokienez, 1.798 emakume ezkongabe (% 85,5), 11 alargun eta 295 dibortziatu ezkondu ziren.

Senarren % 90,8k eta emazteen % 85,5ek 30 urte edo gehiago zituzten

Ezkontideen adinaren arabera banaketari erreparatuta, senarren % 90,8k eta emazteen % 85,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. 2024ko aldi berean, proportzioa % 91,9 izan zen gizonentzat eta % 87,1 emakumeentzat.

2025eko apiril, maiatz eta ekainean, gizonezko ezkonberrien % 9,2k eta emakumezko ezkonberrien % 10,4k atzerriko nazionalitatea zuten. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ehuneko hori ehuneko 0,5 puntu jaitsi da gizonen artean, eta 0,7 puntu igo emakumeen artean.

Ezkontza guztietatik 2.093 sexu desberdineko pertsonen artekoak izan ziren (% 96,5) eta 77 sexu bereko pertsonen artekoak (% 3,5) —41 emakumeen artekoak eta 36 gizonen artekoak—.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2025/II

	2025/II		2025/I			2024/II		
	KOP	%	KOP	%	%	KOP	%	%
Ezkontzak	2.170	100,0	1.260	100,0	72,2	2.413	100,0	-10,1
Araba / Álava	327	15,1	171	13,6	91,2	347	14,4	-5,8
Bizkaia	1.024	47,2	604	47,9	69,5	1.149	47,6	-10,9
Gipuzkoa	705	32,5	441	35,0	59,9	762	31,6	-7,5
Euskal AETik kanpo	114	5,3	44	3,5	159,1	155	6,4	-26,5
Sexu desberdineko pertsonen artean	2.093	96,5	1.210	96,0	73,0	2.322	96,2	-9,9
Kanonikoak	159	7,3	27	2,1	488,9	186	7,7	-14,5
Zibilak	1.934	89,1	1.183	93,9	63,5	2.136	88,5	-9,5
Sexu bereko pertsonen artean	77	3,5	50	4,0	54,0	91	3,8	-15,4
Gizon artean	36	1,7	29	2,3	24,1	42	1,7	-14,3
Emakume artean	41	1,9	21	1,7	95,2	49	2,0	-16,3
Senar-emazteak	2.076	100,0	1.223	100,0	69,7	2.318	100,0	-10,4
Ezkontgabea	1.769	85,2	984	80,5	79,8	1.925	83,0	-8,1
Alargunak	17	0,8	15	1,2	13,3	16	0,7	6,3
Dibortzuatuak	290	14,0	224	18,3	29,5	377	16,3	-23,1
< 30 urte	191	9,2	119	9,7	60,5	188	8,1	1,6
30 - 39 urte	882	42,5	464	37,9	90,1	942	40,6	-6,4
≥ 40 urte	1.003	48,3	640	52,3	56,7	1.188	51,3	-15,6
Espainiarrak	1.884	90,8	1.032	84,4	82,6	2.094	90,3	-10,0
Atzerriko nazionalitatea	192	9,2	191	15,6	0,5	224	9,7	-14,3
Jaiotza-herrialdea Espainia	1.755	84,5	939	76,8	86,9	1.982	85,5	-11,5
Jaiotza-herrialdea beste bat	321	15,5	284	23,2	13,0	336	14,5	-4,5
Emazteak	2.104	100,0	1.207	100,0	74,3	2.329	100,0	-9,7
Ezkontgabea	1.798	85,5	994	82,4	80,9	1.960	84,2	-8,3
Alargunak	11	0,5	12	1,0	-8,3	11	0,5	0,0
Dibortzuatuak	295	14,0	201	16,7	46,8	358	15,4	-17,6
< 30 urte	304	14,4	176	14,6	72,7	302	13,0	0,7
30 - 39 urte	943	44,8	505	41,8	86,7	1.029	44,2	-8,4
≥ 40 urte	857	40,7	526	43,6	62,9	998	42,9	-14,1
Espainiarrak	1.886	89,6	1.004	83,2	87,8	2.104	90,3	-10,4
Atzerriko nazionalitatea	218	10,4	203	16,8	7,4	225	9,7	-3,1
Jaiotza-herrialdea Espainia	1.698	80,7	853	70,7	99,1	1.885	80,9	-9,9
Jaiotza-herrialdea beste bat	406	19,3	354	29,3	14,7	444	19,1	-8,6
Ezkontzaren hilabetea								
Apirila	376	17,3				533	22,1	-29,5
Maiatza	820	37,8				786	32,6	4,3
Ekaina	974	44,9				1.094	45,3	-11,0

(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2025eko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62